



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko urriaren 8a

114. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru lege proiektuak:**

—Foru Lege proiektua, kreditu-gehigarri bat ematekoa, espetxeetako osasun arloko eskumena Nafarroako Foru Komunitateari eskualdatzearen ondorioz transferitutako langileen soldatak ordaintzeko (3. or.).

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Mozioa. Horren bidez, Gorte Nagusietako Diputatuen Kongresua eta Senatua premiatzen dira berehala berritu dezaten Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia. Blanca Isabel Regúlez Álvarez andreak aurkeztu du (5. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformarako otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legea garatu dezan, programa-akordioan ezarritako epean garatu ere. Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu du (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilaria premiatzen da Nafarroako Parlamentuak hartutako erabakiak bete ditzan, zuzenbidezko estatu demokratikoan behar den legez. Pedro José González Felipe jaunak aurkeztu du (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da adostasun-espazio bat sor dezan Nafarroaren garapen sozial eta ekonomikorako proiektu estrategiko lehenetsien inguruan. Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztu du (9. or.).

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Osasun Mentalaren Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (11. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

—Galdera, otso iberiarra espezie babestuen zerrendan sartzeari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (12. or.).

—Galdera, otso iberiarraren balizko erasoei buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (12. or.).

- Galdera, arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka borrokatzeko planari buruzkoa. Jorge Esparza Garrido jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, Bruselatik heldu diren aurrerakinen funtsei buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, Nekazaritza Politika Erkidearen ordainketak aurreratzeari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioak egin duen curriculum proposamen berriari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (14. or.).
- Galdera, Kulturako Lanbideei buruzko Foru Lege proiektuari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, Nafarroako Musikaren Klusterra sortzeari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (16. or.).
- Galdera, erakusketa publikorako zentrozen jarduerak tipifikatu eta sustatzeari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (16. or.).
- Galdera, jakitekoa ea Nafarroako Gobernua prest dagoen Museoei buruzko Foru Lege proiektu bat aurkezteko, erakusketa publikorako zentroak jaso, arautu eta antolatuko dituen. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (17. or.).

---

**A saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

**Foru Lege proiektua, kreditu-gehigarri bat ematekoa, espetxeetako osasun arloko eskumena Nafarroako Foru Komunitateari eskualdatzearen ondorioz transferitutako langileen soldatak ordaintzeko.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 4an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2021eko irailaren 29an hartutako Erabakiaren bidez, foru lege proiektu bat igorri dio Nafarroako Parlamentuari, kreditu-gehigarri bat ematekoa, espetxeetako osasun arloko eskumena Nafarroako Foru Komunitateari eskualdatzearen ondorioz transferitutako langileen soldatak ordaintzeko.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 158. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrarekin adostu ondoren, hona ERABAKIA:

**1.** Osoko Bilkuraren esku jartzea erabakia, espetxeetako osasun arloko eskumena Nafarroako Foru Komunitateari eskualdatzearen ondorioz transferitutako langileen soldatak ordaintzeko kreditu-gehigarri bat emateko Foru Lege proiektuaren izapidetza zuzeneko eta irakurketa bakarrekoa izateari buruzkoa.

**2.** Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

**3.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko urriaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Foru Lege proiektua, kreditu-gehigarri bat ematekoa, espetxeetako osasun arloko eskumena Nafarroako Foru Komunitateari eskualdatzearen ondorioz transferitutako langileen soldatak ordaintzeko**

**ATARIKOA**

Espetxeetako osasun arloko Estatuko Administrazioaren eginkizunak eta zerbitzuak Nafarroako Foru Komunitateari eskualdatzeko uztailaren 6ko 494/2021 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen Transferentzien Batzordeak 2021eko ekainaren 2an hartutako Erabakia, abenduaren 19ko 2356/1984 Errege Dekretuaren 2. artikuluan aurreikusitakoa.

Transferitutako langileak 4 sendagile, 3 erizain, farmazialari 1 eta erizaintzako 2 laguntzaile dira. Guztiak Oinarrizko Osasun Laguntzari atxikita egonen dira, farmazialaria izan ezik, Farmazia Prestazioen Proiektuan sartuko baita.

Haien soldatak ordaindu ahal izateko, kreditu-gehigarri bat eskatu da, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren Oinarrizko Osasun Laguntzako Programetako eta Zerbitzu Zentraletako langileen kapituluko zenbait partidatetik hartu beharrekoa, langileak programa horiei atxikita daude eta.

Langileen arloko gastu hauek egotzi beharreko partidetan egun dagoen kreditua ez da nahikotzat jotzen langile horiek Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzura eskualdatzeak dakarren gastua estaltzeko. Zehazki, guztira 265.326,40 euroko zuzkidura proposatzen da zenbait partidatan.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 48. artikulua 1. puntuak ezartzen du ezen, hurrengo ekitaldira arte berandutu ezin daitekeen gasturen bat aurrekontu indardunaren kargura egin behar bada eta

dagoen kreditua aski ez bada eta ezin bada handitu aipatutako foru legean jasotako xedapenen arabera, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposaturik, foru lege proiektu bat bidaliko duela Nafarroako Parlamentura, kreditu-gehigarri bat ematekoa.

Artikulu horren 2. apartatuan ezartzen denez, foru lege proiektu horretan zehaztu behar da zein baliabide diren egin nahi den gastu handiago hori finantzatzeko dutenak; edozein gastu programatako beste kreditu erabilgarri batzuk izan daitezke, are Parlamentuak zuzenketen edo foru lege horretako xedapenen ondorioz berariaz onetsitako kredituetakoak, edo bestela, ekitaldi ekonomiko bereko diru-sarrera handiagoen kargura (diru-sarrera

horiek errealak edo aurreikusitakoak direla ere), jatorrian dagoen gastua egiteari lotutako diruzaintzako gerakinaren aplikazioaren kargura edo gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinaren kargura, positiboa denean.

#### 1. artikulua. Kreditu-gehigarria ematea.

265.326,40 euroko kreditu-gehigarri bat ematen da 2021eko ekitaldirako, espetxeetako osasun arloko eskumena Nafarroako Foru Komunitateari eskualdatzearen ondorioz transferitutako langileen soldatak ordaintzeko

Kreditu-gehigarri hori aurrekontuko partida hauetan aplikatuko da eta zenbateko hauek izanen ditu:

"Langile finkoen ordainsariak" izeneko 547001-52300-1200-312200 partida	112.394,53 €
"Aldi baterako kontratudunen ordainsariak" izeneko 547001-52300-1220-312200 partida	17.471,29 €
"Ordainsari pertsonalak" izeneko 547001-52300-1400-312200 partida	24.887,10 €
"Lanbide karreraren ordainsariak" izeneko 547001-52300-1410-312200 partida	17.198,03 €
"Guardiak egiteagatiko osagarria" izeneko 547001-52300-1704-312200 partida	54.148,00 €
"Sakabanatze geografikoagatiko osagarria" izeneko 547001-52300-1706-312200 partida	3.283,11 €
"Txandakako lanaren ordainsaria" izeneko 547001-52300-1707-312200 partida	4.512,36 €
"Kapitazio osagarria" izeneko 547001-52300-1709-312200 partida	3.417,72 €
"Langile finkoen ordainsariak" izeneko 540005-52831-1200-311100 partida	19.142,40 €
"Ordainsari pertsonalak" izeneko 540005-52831-1400-311100 partida	3.602,59 €
"Lanbide karreraren ordainsariak" izeneko 540005-52831-1410-311100 partida	5.269,27 €

**2. artikulua.** Kreditu-gehigarriaren finantzaketa.

265.326,40 euroko kreditu-gehigarri hau 2021eko gastuen aurrekontuko "Estatuarentzako ekarpena" izeneko 160000 17100 4000 941100 partidaren kargura finantzatzeko da.

**Azken xedapen bakarra.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

## **Mozioa. Horren bidez, Gorte Nagusietako Diputatuen Kongresua eta Senatua premiatzen dira berehala berritu dezaten Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia.**

### *BLANCA ISABEL REGÚLEZ ÁLVAREZ ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Blanca Isabel Regúlez Álvarez andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Gorte Nagusietako Diputatuen Kongresua eta Senatua premiatzen baitira berehala berritu dezaten Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko urriaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Blanca Regúlez Álvarez andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia kide anitzeko organo konstituzional bat da, autonomia eta epaile nahiz bestelako juristez osatua, botere judizialaren gobernu-eginkizunak egiten dituena, bermatze aldera epaileek independentziaz jardunen dutela funtzio judiziala betetzen dutenean.

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren jarduna ez da jurisdikzionala, jarduketa-mota hori epaileek eta auzitegiek soilik egin dezaketelako, Espainiako Konstituzioaren 117. artikuluan ezarzen denaren arabera. Beraz, bere egitekoa da,

besteak beste, izendapenak, igoerak eta lekualdatzeak erabakitzea, edo epaitegi eta auzitegien funtzionamendua ikuskatzea eta karrera judizialeko kideei diziplina-erantzukizunak exijitzea.

Halatan, gisa horretako eskumenak Kontseiluaren esku uztean, Estatuaren beste botere batek —Botere Betearazleak, zehazki— independentzia judizialean zuzenean nahiz zeharka eragin ahal izatea ekiditen da, halako moduan non botereen arteko banaketa bermatzen baita.

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia hogeiki kide osatzen dute. Erregeak izendatzen ditu, Gorte Nagusiek gaitasun frogatuko epaile eta juristen artean hautatzen ditu (10 Kongresuak eta 10 Senatuak), eta Kontseiluaren Osoko Bilkurak batzordeburua hautatzen du, gaitasun frogatuko juristen edo karrera judizialeko kideen artean, kontseiluaren eratze-bilkuran. Batzordeburua Auzitegi Goreneko eta Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko lehendakari ere izanen da.

Kontseilukideak bost urterako hautatzen dituzte, eratze-bilkuraren egunetik aitzina zenbatuta.

Botere Judizialaren egungo Kontseilu Nagusiak, Mariano Rajoyk 2011n lortu zuen gehiengo osoaren irudira eratua 2013an, 2018ko abenduan bukatu beharko zukeen agintaldia. Konstituzioak ezarritako 5 urteko agintaldia bukatzean kontseiluaren osaera aldatu ez zenez, ordea, jardunean da harrezkero.

Kontseiluaren berritzea blokeatuta dago, kontseilukideak izendatzeko legeak gehiengo kualifikatua exijitzen duela aprobetxatuta, interes partidistak direla medio. Kongresuan eta Senatuan ez da berritze hori zertu, berritzea zertu behar dutenek denetarik aitzakiak erabili dituztelako; batez ere oposizioko alderdi nagusiak —Alderdi Popularrak—, zeinak kontseilukideak hautatzeko sistemaren erreformarekin lotu nahi du haren berri-

tzea, epaileak eurak izan daitezten kontseilukideak hautatzen dituztenak, eta eragotzi egiten du, hartara, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak egungo errealtatearen arabera osoa izan dezan, erosio instituzional handiak sortuta horrela.

Botere Judizialaren egungo Kontseilu Nagusiak 1.000 egun baino gehiago darama jardunean, eta horrek berealdiko prestigio-galera dakarkie botere judizialari eta justiziar berari.

27 estatuetan zuzenbide estatua zertan den aztertzen duen Europako Batzordearen 2021eko uztailko azken txostenean Espainiari buruz kezka esaten da (2020an bezala), Espainiako zuzenbide estatuarekin lotutako zenbait gairi buruzko iritziekin batera, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia “bitarteko izaeraz betetzen ari dela bere funtzioak, 2018ko abenduaz geroztik, eta horrek areagotu egiten duela politizazioaren aitzinean jendeak ahula dela hautemateko kezka”.

Kontseilua berritzeko blokeo horrek ondorioak ditu Nafarroan ere. Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Arlo Zibileko eta Zigor-arloko Salak izan beharko lituzkeen 5 magistratuetatik 3 besterik ez ditu gaur egun. Hiru magistratu horietako bat Nafarroako Parlamentuak 2021eko ekainean pro-

posatu zituen hiru hautagaien artean hautatu behar zen. Botere Judizialari buruzko 6/1985 Lege Organikoa aldatzen duen martxoaren 29ko 4/2021 Lege Organikoa, zeinaren bidez ezartzen baita jarduneko Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari aplikatu beharreko araubide juridikoa, zeharo murrizten ditu kontseiluaren eginkizunak, halako moduan non jardunean dagoen bitartean ezin baitu izendapenik egin, eta horregatik hain zuzen ere ez da egin izendapen hori. Halatan, eutsiezina da Nafarroan errekurtsorik gorabeheratsuenak jasotzen dituen sala horren egoera.

Horregatik guztiagatik, erakundeek gizarte demokratiko baten isla izan behar dutelako —epaileak hautatzeko moduari buruzko eztabaida sakona planteatzen duenik baldin badago ere— eta kontseilua lehenbailehen berriro behar delako, Geroa Bai talde parlamentarioak honako erabaki proposamen hau aurkeztu du:

– Nafarroako Parlamentuak Gorte Nagusietako Diputatuen Kongresua eta Senatua premiatzen ditu berehala berriro dezaten Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia.

Iruñean, 2021eko irailaren 30ean

Foru parlamentaria: Blanca Regúlez Álvarez

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legea garatu dezan, programa-akordioan ezarritako epean garatu ere.**

### **IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legea garatu dezan, programa-akordioan ezarritako epean garatu ere.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari

ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoaren eledun Marisa de Simón Caballerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena:

2019ko otsailaren 4an, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legea onetsi

zuen. Nafarroako Gobernuak sustatu eta gehien-  
go osoz onetsitako lege horren xedea da zerbitzu  
mankomunatu nahiz mankomunatu gabekoan  
prestazioa arautzen duen antolamendu berri bat  
ezartzea toki administrazioan. Legeak finantzake-  
ta-eredu berri bat ezarri zuen, bai eta eskumen  
berekien banaketa argi bat ere.

Toki Administrazioa arautzen duten lege nagusi-  
ak aldatu ondoren Nafarroako toki entitateetan  
egin beharreko aldaketa sakonen oinarri izanen  
den esparru bat ezartzea bilatzen zuen erreforma-  
k. Hortik aurrera, lurralde-egitura berria behin  
betiko zehaztuko zuten arau-aldaketak etorriko  
lirateke.

Hala, Nafarroako Toki Administrazioaren ideia  
gaurkotua sustatu nahian, udalez gaindiko antola-  
keta berri bat sortuko litzateke eskualdearen bitar-  
tez, eta figura horrek hartuko lituzke bere gain  
mankomunitate sektorialek eta azken urteetan  
sortutako antzeko entitateek orain arte bete dituz-  
ten eginkizunak.

Nafarroa hamabi eskualdetan antolatzen duen  
lurralde-banaketa ezartzen du arauak, Nafarroako  
Lurralde Estrategiak bere garaian proposatutako  
azpieroak abiapuntutzat hartuta. Nolanahi ere,  
behin betiko formari begira, udalen borondatea  
kontuan hartuko da, proposamenak eta alternati-  
bak aurkezteko aukera izanen baitute. Eskualdeak  
sortzeko prozesua amaitzen denean —eskualde  
bakoitzeko foru lege bat egin beharko da— udal-  
erri guztiak eskualderen batean sartuta egoen lirateke.

Toki entitateek hamabi hilabeteko epea izanen  
lukete eskualde baten sorrera-prozesua abiatu  
ahal izateko, Gobernuak, baldin eta ukitako udalak  
aurrez ekimenaz baliatu ez badira, ekimenaz  
baliatu baino lehen.

Gure koalizioak orduan ere adierazi zuen lege  
horrek bultzada erabakigarria emanen ziola toki  
administrazioaren arrazionalizazioari, zerbitzu  
hobeak emate aldera. Urteak eta urteak genera-  
matzan hitz egiten, eta bat gentozen egitura ez  
zela arrazoizkoa esaterakoan, baina aldaketa poli-  
tikoa heldu zen arte ez ginen hitzetatik ekintzetara

pasatu. Bai orduan eta bai orain, legea onestea-  
ren onuradun nagusiak nafarrak izanen direla uste  
dugu, zeren eskualdeen bitartez zerbitzu hobeak  
eman baitaitezke, tokiko autogobernua indartu  
bidenabar.

Bizikidetzazko eta berdintasunezko legegint-  
zaldi berritzaile eta aurrerakoirako programa-  
akordioak —Nafarroako Gobernuaren euskarria  
hori baita— honako hau dio lege horri buruz:

“Ontzat emanik badirela azkar bideratu beha-  
rreko gaiak, eta eztabaidatu eta gehien-  
go zabala-  
goaz onar daitezkeenak. Adosten da legeak ema-  
ten dituen epeen luzapena, 2020ko abenduaren  
31ra arte, beharrezkotzat joko baliatzen beste luzapen  
bat egiteko aukera eta guzti, 2021eko abenduaren  
31ra arte, zer aldaketa egin beharko den aztertu  
ahal izateko hainbat arlori dagokienez: eskudun-  
tzak, finantzazioa, idazkarien eta kontu-hartzaileen  
egoera, kideen hautaketa, eta tokiko erakunde  
bakoitzak legedian izanen duen kokapena. Horrek  
ez du esan nahi kontsentsua erdiesten den gaiak  
lehenago garatu ezin izanen direnik”.

Gure ustez, arau horrek herritarrei egiten die  
mesede batik bat —izan ere, tokiko erreforma on  
batek herritarrei zerbitzu gehiago eta zerbitzu  
hobeak emateko balio behar du—, baina baita  
tokiko munduari berari ere, entitateen boterea are-  
agotuko delako, toki entitate indartsuagoak, efi-  
zienteagoak eta eraginkorragoak (eskualdeak,  
alegia) sortuz.

Horregatik guztiatik, uste dugu beharrezkoa  
eta funtsezkoa dela lege hori garatzea, programa-  
akordioan jasotakoa bete bidenabar.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu  
premiatzen du Nafarroako Toki Administrazioaren  
Erreformatarako otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legea  
garatu dezan, programa-akordioan ezarritako  
epean garatu ere.

Iruñean, 2021eko urriaren 5ean

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilaria premiatzen da Nafarroako Parlamentuak hartutako erabakiak bete ditzan, zuzenbidezko estatu demokratikoan behar den legez.**

*PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilaria premiatzen baita Nafarroako Parlamentuak hartutako erabakiak bete ditzan, zuzenbidezko estatu demokratikoan behar den legez.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Pedro González Felipe jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Zioen azalpena

Parlamentu honek mozio bat onetsi zuen ekainaren 10ean, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen baitu Nafarroako ikastetxe guztiei utz diezaien pandemiaren aurreko eskola-antolamendua eta -ordutegia berreskuratzen, 2021-2022 ikasturteko eskola-egutegia eta ordutegi orokorra prestatzeko jarraitibideak ematen dituen Hezkuntzako zuzendari nagusiaren maiatzaren 6ko 153/2021 Ebazpenaren esparruan.

Mozio hori —beste ekimen parlamentario batzuekin batera, adibidez Nafarroako guraso-elkarteen federazio guztiekin egindako lan-bilkura bat— izapidetu zen Hezkuntzako kontseilaria Gimeno jaunak iragarri ostean 2021-2022 ikasturtean eskolaldi jarraitua mantenduko dela, bukatzean zen ikasturtean COVID-19aren pandemia dela-eta ikastetxeei ezarritakoari eutsiz.

Federazio horiek, eta hezkuntza-erkidegoa oro har, kezu ziren ez soilik elkarrizketarik ezagatik, ezpada aditu ere ez direlako egin gizarte- nahiz familia-antolakuntzarako hain garrantzitsua den gai hori dela-eta Hezkuntzako kontseilariari egindako eskariak.

Arrazoi horiei guztiei entzungor eginez, Hezkuntza Departamentuak, Parlamentu honen agindu demokratikoa ez betetzeaz gain, aldebakartasunez aldatu du beste behin bere irizpidea, eta urritik aitzina proposatzen du eskolaldia jarraitua izatea, eta lau arratsaldetan eskolaz kanpoko ekintzak nahitaez eman behar izatea.

Proposamen horrek, irakasleekin, ikastetxeekin eta familiekin inolako negoziatorik egin gabe arestikoa baztertzear gain, pandemiaren egoerara moldatzeko eta analizatzeko urriak ematen zuen aukera galtzen uzten du, eta hezkuntza-erkidegoa behartzen du antolamendu- eta funtzionamendu-egitura zeharo berri bat edukitzera, ez baitauka ez espaziorik ez betarik ikastetxeetan hori antolatzeko; eta beste horrenbeste gertatzen zaie familiei.

Hezkuntza Departamentuaren jokamolde hori ez da pandemiaren kudeaketan soilik eman. Ikasleen onarpen-prozesua bezalako gai garrantzitsuetan ere beste horrenbeste gertatu da. Tokiko Eskolatze Batzordeak kentzean babesik gabe utziko dira gizarte-babesaren premiarik handiena duten pertsonak, nahiz eta Parlamentu honek batzorde horiek mantendu zitezten premiatzen zuen mozio bat onetsi zuen.

Eta hori dena, ez hitz egitearren eskola-garraioaren lizitazio berria dela-eta Nafarroako hainbat herritan sortutako ika-mika handiaz edo, kudeaketa zeharo desegokiaren azken kapitulu gisa, gure foru erkidegoan hezkuntza berezituko ikastetxeek itunak ustez urratu izanaren gaineko kudeaketaz.

Horregatik guztiagatik:

**1.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilaria premiatzen du Nafarroako Parlamentuak hartutako erabakiak bete ditzan, zuzenbidezko estatu demokratikoan behar den legez.



2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilaria premiatzen du hezkuntza-erkidegoak parte hartzeko eta hari aditzeko behar diren bideak gaitu ditzan, aginduzkoa denari jarraikiz, hezkuntza-sisteman eragina duten erabakiak hartu aitzin.

Iruñean, 2021eko urriaren 6an

Foru parlamentaria: Pedro González Felipe

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da adostasun-espazio bat sor dezan Nafarroaren garapen sozial eta ekonomikorako proiektu estrategiko lehenetsien inguruan.**

### *ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita adostasun-espazio bat sor dezan Nafarroaren garapen sozial eta ekonomikorako proiektu estrategiko lehenetsien inguruan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2021eko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, heldu den urriaren 14ko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena

Duela egun batzuk, hedabide batek Calviño ministroak autonomia-erkidego guztien lehendakari bidali omen dien gutun bat aipatzen zuen. Gutun horretan, ministroak 15 eguneko epea ezarriko luke, Europako Funtsen bidez finantzatzeko gehienez ere 3 proiektu aurkezteko.

Hasieratik aldeztu dugu Next Generation funtsak eraldaketa sakon baterako palanka gisa balio behar dutela. Trantsizio ekologikoari aurre egiteko, trantsizio digitala erronka sozialen zerbitzura jartzeko eta erresilientzia ekonomiko eta soziala sendotuko duten estrategiak garatzeko.

Oso une berezia bizitzen ari gara. Krisi ekologikoa, krisi demografikoa eta iraultza digitala dira gainera datozkigun krisietako batzuk. Bestalde, sektore publikoaren ardura ezin da ordeztu enpresa multinazional jakin batzuei protagonismo erabakigarria eta erabakitzailea emanda garapen ekonomikoari dagokionez. Lankidetzeta publiko-privatua onargarria izan daiteke, baina horrek ez du esan nahi erakunde publikoek teknologien garapena finantzatu behar dutenik eta teknologia horiek errentagarriak direnean eta irabaziak sortzen dituztenean enpresa horietako akziodunek beraien artean banatu behar dituztenik.

Sektore publikoak eginkizun ekintzaile aktiboa izan behar du eta ekonomian esku hartu behar du beharrezkotzat joko den eraldaketa sozial sakon baten mesedetan.

Beste eztabaida bat abiatu beharko genuke, Nafarroak erabaki dezakeenaren inguruan. Egunkarietan agertutako informazioa egia bada, agerian jartzen da Nafarroako Gobernuaren ekintza-ahalmena mugatua proiektu estrategikoak aurkezterakoan, eta ez duela gure lurraldearen garapen-eredua baldintzatuko duen inbertsio publikoa antolatzeke ahalmenik, halako moduz non beste batzuek erabakiko duten etorkizun sozial eta ekonomikoa.

Begi bistakoa da Next Generation funtsetatik eratorritako inbertsioak etorkizuneko garapen-ereduaren oinarri izanen direla. Eta debora agortzen ari da. Eraldaketa ikaragarria gertatzen ari da berebiziko abiadan. Pandemiaren hilabeteak urteak izan dira garapen digitalari dagokionez. Energiaren Nazioarteko Agentzia errotiko eraldaketa energetikoa egiteko premiatzen du, erregai fosilak alde batera utzita. Nazio Batuen Erakundeko Aldaketa Klimatikorako Nazioarteko Taldearen seigarren txostenak dio lau urte ditugula emisioak zorrotz jaisteko; hori egin ezean, klima-nahasmen- du kontrolaezinezko egoera batera iritsiko gara, ondorio kalkulaezinak izanen dituen oraingo eta etorkizuneko belaunaldientzat. Iraultza digitalaren eta trantsizio energetikoaren bat egiteak ekoizpen-egituraren eraldaketa ekarriko du, eta horrek gure industriaren sendotasuna arriskuan jarriko du. Azkenik, krisi demografikoa erronka bat da gure ongizate-egitura guzti-guztientzat, gaur egun pentsatuta dauden moduan. Hala, inoiz ezagutu gabeko egoera historiko bat dugu aurrean, hiru eraldaketa sakonen bat egitea ezaugarri duena: eraldaketa ekologiko-energetikoa, eraldaketa digitala eta eraldaketa demografikoa.

Une historiko honek belaunaldien arteko itun zabal bat ere eskatzen du. Hamar urte eskasean gure erkidegoa errotik aldatuta izanen da ekonomia, gizartea, kultura eta politikaren arloan; norabide batean edo bestean. Norabide egokia hautatzea da gaur egun ardura politikoak ditugunon erantzukizuna.

Horiek horrela, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du adostasunerako gune bat eraiki dezan Nafarroako garapen ekonomiko eta sozialerako lehentasunezkoak diren proiektu estrategikoen inguruan. Era berean, bere konpromisoa adierazten du elkarrekin xede argi bat zehazteko proiektuetako bakoitzerako eta interes komunaren zerbitzuko lankidetzara publiko-pribatua taxutzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak uste du hiru proiektu estrategiko daudela Next Generation programaren funtsezko hiru oinarriei erantzuten dietenak, eta Nafarroako Gobernuak premiatzen du Estatuko Gobernuaren aurrean lehenetsi ditzan:

2.1. Iraupen luzeko zainketen berrikuntza, zehaztu behar dena, Gobernuak berak eginiko proposamenean jasotzen den moduan, hiru esku-hartzetan:

a) Inbertsioa egoitzetan, eguneko zentroetan eta etxebizitzetan, efizienteak energiaren ikuspuntutik, irisgarriak eta pertsonari beste pertsona kopuru txiki batekin batera bizi-ahabidetzeko dien diseinu arkitektonikoarekin, beren nortasunari ertsiz eta beren bizi-proiektua eraikitzen jarraitzeko aukerarekin.

b) Inbertsioa profesional berrien prestakuntzan, profesionalen eskumenak zabaltzen eta zuzendaritza-taldeen prestakuntzan.

c) Inbertsioa iraupen luzeko zainketari aplikaturiko teknologia berrietan. Telelaguntza sistema aurreratu baten garapena. Egoitzak beharrezkoa duten konektibitateaz eta digitalizazioaz hornitzea.

2.2. Ospitaleko, Osasun Mentaleko, Osasun publikoko eta zerbitzu globalerako osasun-laguntzako zerbitzuak zabaltzea, zehaztu behar dena, Gobernuak berak eginiko proposamenean jasotzen den moduan, azpiegituren modernizazioa, ekipamenduen hobekuntza eta zerbitzuen modernizazioa helburu dituzten ekintzetan, zerbitzuen prestazioa eta Nafarroako Foru Komunitateko oinarritzko osasun eskualde guztien irisgarritasuna optimizatzeko, efizientzia irizpidez aintzat hartuta. Sareko hiru ospitaleetan garatuko da (Nafarroako Ospitalegunea, García Orcoyen ospitalea eta Tuterako Reina Sofía ospitalea), bai eta Osasun Mentalerako sarean, Osasun Publikoan eta erreferentziazko beste zerbitzu batzuetan, hala nola Nafarroako Laborategi Bateratuan.

2.3. Navanza - Herri eta hiri erresilienteak eta jasangarriak eraikitzeke suspertze-plana, zeinak, Gobernuaren proposamenak jasotzen duen moduan, "helburu baitu Foru Administrazioaren eta toki administrazioen arteko lankidetzara inbertsioen eta toki entitateen eskumeneko arloetako erreformen ezarpena optimizatzeko. Planak lau alorretako esku-hartzeak jasotzen ditu: trantsizio ekologikoa, eraldaketa digitala, genero berdintasuna eta gizarte- eta lurralde-koheretza.

Iruñean, 2021eko urriaren 6an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

## **Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Osasun Mentalaren Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

"1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Osasun Mentalaren Nazioarteko Eguna dela-eta urriaren 10ean izanen diren ekitaldiekin.

2. Nafarroako Parlamentuak uste du gobernuen gidaritzan, inplikazioa eta herritarren sentsibilizazioa ezinbestekoak direla osasun mentalaren arreta hobetzeko.

3. Nafarroako Parlamentuak babesten ditu nahasmendu mentalak dituzten pertsonen berres-

kuratze pertsonalera eta estigma soziala ezabatzerako bideraturiko estrategiak.

4. Nafarroako Parlamentuak uste du osasungintza publikoa ezinbesteko tresna dela osasun mentalaren arreta bermatzeko". (10-21/DEC-00061).

Iruñean, 2021eko urriaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, otso iberiarra espezie babestuen zerrendan sartzeari buruzkoa.***MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkezturiko galdera, otso iberiarra espezie babestuen zerrendan sartzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urriaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Otso iberiarra espezie babestuen zerrendan sartzeko bozketan abstenitu eta gero, zein da Nafarroako Gobernuaren jarrera?

Iruñean, 2021eko irailaren 27an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

**Galdera, otso iberiarraren balizko erasoei buruzkoa.***MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkezturiko galdera, otso iberiarraren balizko erasoei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urriaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarraren

Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Zer neurri prebentibo eta aringarri hartuko dira otso iberiarraren balizko erasoak arintzeko? Zer

kalte-ordain egonen litzateke halakorik gertatuz gero?

Iruñean, 2021eko irailaren 27an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

## **Galdera, arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka borrokatzeko planari buruzkoa.**

### *JORGE ESPARZA GARRIDO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jorge Esparza Garrido jaunak aurkezturiko galdera, arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka borrokatzeko planari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urriaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen

Jorge Esparza Garrido jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Migrazio Politiketako eta Justiziako kontseilariak idatziz erantzun dezan:

1.- Departamentuak ba al zekien eztabaida-taldeetan parte hartzea ekonomikoki konpentsatzeko asmoa zeukala Arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka borrokatzeko plana taxutzeko ardura zeukan enpresak?

2.- Departamentua ados al dago parte-hartzea bultzatzeko modu horrekin?

3.- Zenbat pertsonari eman zaie konpentsazioa eta zenbat diru eman zaie guztira?

4.- Gastu hori plana taxutu duen enpresaren ala departamentuaren kargura izan da?

Iruñean, 2021eko irailaren 28an

Foru parlamentaria: Jorge Esparza Garrido

## **Galdera, Bruselatik heldu diren aurrerakinen funtsei buruzkoa.**

### *MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bruselatik heldu diren aurrerakinen funtsei buruz Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkezturiko galdera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urriaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Nekazaritza Bermatzeko Espainiako Funtsari eskatu al diozue Bruselatik heldu diren aurrerakinen funtsak liberatu ditzan Nafarroarentzat?

Iruñean, 2021eko irailaren 29an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

---

## **Galdera, Nekazaritza Politika Erkidearen ordainketak aurreratzeari buruzkoa.**

*MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkezturiko galdera, Nekazaritza Politika Erkidearen ordainketak aurreratzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urriaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarraren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak idatziz erantzun dezan.

Europar Batasunak baimendu du urriaren 16tik aitzina ordaindu ahal izatea Nekazaritza Politika Erkidearen ordainketa-aurrerakinen % 70 (zuzeneko ordainketen kasuan), bai eta azalaren kudeaketako sistema integratuarekin zerikusia duten Landa Garapeneko ordainketa-aurrerakinen % 85 ere. Ordainketa horiek egingen dituzue?

Iruñean, 2021eko irailaren 29an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

---

## **Galdera, Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Ministerioak egin duen curriculum proposamen berriari buruzkoa.**

*BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkezturiko galdera, Hezkuntzako eta

Lanbide Heziketako Ministerioak egin duen curriculum proposamen berriari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urriaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu-Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako Foru Parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren babesean, eskatzen du Nafarroako Gobernuak honako galdera honi idatziz erantzun diezaion:

Espainiako egunkari batek argitara eman zuen iragan irailaren 27an Espainiako Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioak osatu omen duen curriculum berria. Albistean iragarri zutenaren arabera, Lehen Hezkuntzatik Batxilergora bitarteko curriculum osatu dute, abenduan onartutako LOMLOE abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoaren arabera.

Egunkariak aipatzen zuen Ministerioaren proposamena erkidego autonomoetara helarazi dela

“iradokizunak” egiteko, beti ere, azken hitza Espainiako Gobernuak izango duelarik.

Horrekin batera, irailaren 28an Nafarroako Gobernuak alde aurreko jendaurreko kontsultari bide eman zion, Nafarroako Foru Komunitatean Batxilergoko irakaskuntzetarako curriculum ezartzen duen foru dekretuari buruzko proiekturako.

Hau dela eta, ondorengo galderak egiten dizkiogu Hezkuntza Departamentuari:

1. Jaso al du Hezkuntza Departamentuak iradokizunak egin ahal izateko Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren curriculum berriaren proposamena? Baiezkoa bada erantzuna, noiz jaso da?

2. Egin al dio Hezkuntza Departamentuak iradokizunik aipatu proposamenari? Baiezkoa bada erantzuna, zeintzuk dira ekarpen horiek?

3. Nafarroako Hezkuntza komunitatea osatzen duten eragileei galdetu al zaie ekarpen horiek osatu baino lehen? Baiezkoa bada erantzuna, zein eragilei?

Iruñean, 2021eko irailaren 30ean

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

## **Galdera, Kulturako Lanbideei buruzko Foru Lege proiektuari buruzkoa.**

### **MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, Kulturako Lanbideei buruzko Foru Lege proiektuari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urriaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

• Parlamentari naizen aldetik jakin nahi dut zertan den Kulturgintzako Lanbideen Foru Lege proiektua, bai eta proiektua Nafarroako Parlatora igortzeari begira zer aurreikuspen darabilzuen ere.

Iruñean, 2021eko irailaren 30ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, Nafarroako Musikaren Klusterra sortzeari buruzkoa.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroako Musikaren Klusterra sortzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urriaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

- Parlamentari naizen aldetik jakin nahi dut ea Nafarroako Gobernuak zer jarrera duen Nafarroako Musikaren Klusterra sortzeari buruz.

Iruñean, 2021eko irailaren 30ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, erakusketa publikorako zentroyen jarduerak tipifikatu eta sustatzeari buruzkoa.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, erakusketa publikorako zentroyen jarduerak tipifikatu eta sustatzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urriaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

- Parlamentari naizen aldetik jakin nahi dut ea Nafarroako Gobernuak zer egingen duen Parlamentuaren Osoko Bilkurak 2021eko irailaren 30ean onetsi zuen mozioaren bigarren puntua betetzeko. Horren bidez (10-21/MOC-00010), Nafarroako Parlamentuak "bere egiten ditu "Ondarezain" Elkartearen aldarrikapenak eta Nafarroako Gobernu premiatzen du Kultura Departamentuaren, Garapen Ekonomikorako (Turismo) Departamentuaren eta Hezkuntza Departamentuaren lana koordinatu dezan, erakusketa publikorako zentroyetako jarduerak zehaztu eta sustatzeko xedez".

Iruñean, 2021eko irailaren 30ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro



## **Galdera, jakitekoa ea Nafarroako Gobernuak prest dagoen Museoei buruzko Foru Lege proiektu bat aurkezteko, erakusketa publikorako zentroak jaso, arautu eta antolatuko dituen.**

### *MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko urriaren 4an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, jakitekoa ea Nafarroako Gobernuak prest dagoen Museoei buruzko Foru Lege proiektu bat aurkezteko, erakusketa publikorako zentroak jaso, arautu eta antolatuko dituen.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2021eko urriaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

- Parlamentari naizen aldetik jakin nahi dut ea Nafarroako Gobernuak erakusketa publikorako zentroak jaso, arautu eta ordenatuko dituen Museoei buruzko Foru Lege proiektu bat aurkezteko asmorik duen, eta, kasua bada, Nafarroako Gobernuak noiz aurreikusten duen foru lege proiektu hori onestea.

Iruñean, 2021eko irailaren 30ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro





